



SDEIBAR

**2019 Akziodunen
Batar Nagusira
bertaratzea**

Asistentzia- txartela eskuratzea

2019ko Akziodunen Batzar Nagusira bertaratu nahi den akziodun orok asistentzia-txartela eraman beharko du nahitaez. Txartela eskuratzeko hainbat modu dago:

- 1_ Klubaren bulegoetan zuzenean eskatzea, Ipurua Estadioan, bulego orduetan.
- 2_ Mezu elektronikoko bat bidaltzea accionistas@sdeibar.com helbidera, norbere burua akziodun gisa identifikatuta.
- 3_ Batzarrean bertan eskatzea, norbere burua akziodun gisa identifikatuta.
- 4_ <http://www.sdeibar.com/eu/akziodunak> webgunearen bitartez eskatzea, norbere burua akziodun gisa identifikatuta. Bertan, IFZ (NAN edo IFK) eta batzarra egin aurretik posta elektronikoz jasoko dituen ID eta pin-kodea sartu beharko ditu akziodunak. Bertaratuko diren akziodunentzat soilik, ez ordezkariarentzat.

Asistentzia-txartela alde aurretik eskuratzea gomendatzen da, batzarraren eguna baino lehen, aretora errazago sartzeko eta bileraren hasiera ez atzeratzeko.

Beste akziodun batzuen ordezkari moduan bertaratuko naiz

2019ko Akziodunen Batzar Nagusira beste akziodun batzuen akzioen ordezkari moduan bertaratu nahi den akziodun -edo erabiltzaile- orok boto- eta eskuordetze-txartela bidali behar du. Horretarako, hainbat aukera ditu:

- 1_ Klubaren bulegoetan zuzenean egitea, Ipurua Estadioan, bulego orduetan.
- 2_ Mezu elektronikoko bat bidaltzea accionistas@sdeibar.com helbidera.
- 3_ Batzarrean bertan egitea.

Eskuordetze-txartela aldezturik bidaltzea gomendatzen da, batzarrearen eguna baino lehen, aretora errazago sartzeko eta bileraren hasiera ez atzeratzeko.

Eskuordetze-txartela jasotzen duenean, sozietateak asistentzia-txartela igorriko dio ordezkariari, bidalketa-modu berdina erabilita. Horrekin, batzarrean zuzenean sartu ahal izango da ordezkaria.

Asistentzia-txartela jaso ondoren, ordezkariak ordezkaritza gehiago jaso dezake. Ordezkaritza osagarriak automatikoki gehituko dira bidalitako asistentzia-txartelaren sisteman, txartel berri bat igortzeko beharrik gabe.